



Zaldibar urtebetera

Urtebete joan da Zaldibarren Verter Recycling zabortegia amildu zenetik. Gertatutakoaren erantzukizunak ez dira argitu oraindino. Langile biren heriotza, hondamendi ekologikoa, auzi judiziala, auzokideen egoera... Zaldibar Argitu! plataformak mobilizaziora deitu du hainbat herritan. • **14-17**

Río de Orok ekarpenak eskatu ditu Sahararen aldeko karabanarako

Sahara • Sahararen aldeko elkarteak ekarpen ekonomikoak jasoko ditu aurten elikagaiak barik. Bizum-en zein transferentzia baten bitartez laguntzeko aukera eman dute. 24 tona elikagaiz betetako trailerra Tinduferra bidaltzea dute helburu. • **4**



Hizkuntza Escuela Oficial
Eskola Ofiziala de Idiomas


**2021eko matrikula librea
ZABALIK**

On-line

Otsailaren 1etik
Otsailaren 12ko 13:00etara arte

36,18€

www.eoidurangoehe.vezkuntza.net
94 620 33 42 – 94 681 66 45



Durangoko herri galdeketa euren borondatez lan egingo duten 51 herritarren laguntzagaz antolatuko dute

Udalak 51 boluntario bilatzeko deialdia kaleratu du. Besteak beste, herri galdeketa egunean hauteslekuak osatzeko eta botoak zenbatzen laguntzeko betebeharra izango dute. Bakoitzak 85 euroko ordainsaria jasoko du lanagaitik

DURANGO • ANBOTO

Durangoko Udala boluntario bila dabil tren geltoki zaharrari buruzko herri galdeketa antolatzeko. 51 durangar behar ditu, eta 51 boluntario horiek berrmatuko dute, udal eragileekin batera, herri galdeketa funtzionamendua. Besteak beste, Landako Gunean ipintzekoak diren hautesleketan egon beharko dute galdeketa egunean. 08:00etatik 20:00etara arteko lanaldia izango dute. Dena dela, hautesontziak zarratu ostean botuak zenbatzen ere lagunduko dute. Udal iturriek jakinarazi dutenez, bakoitzak 85 euroko ordainsaria jasoko du egun osoko lanagaitik. Interesdunek otsailaren 10era arte dute zabalik epea izena emateko.



Tren geltoki zaharraren orubea.

Betebeharrak eta baldintzak

Boluntarioek bete beharreko zereginak eta konplitu beharreko baldintzak zeintzuk diren argitu du Durangoko Udalak. Batetik, Durangon erroldatutako 18 urtetik gorako 34 pertsona behar ditu. Eta, bestetik, udalerrian erroldatutako 18 urtetik gorako beste 17 lagun. Lehenengoek hauteskunde mahaiak osatzen lagunduko dute. Bigarrenak an-

tolakutza zereginetan laguntzeko betebeharra izango dute.

Boluntario guztiek batxilergo-ko titulua edo haren baliokidea izan beharko dute. Beste eskakizunetarikoa bat euskara maila da. Boluntarioek euskararen 3. hizkuntza eskakizuna izan beharko dute. Dena dela, udalak argitu du halakorik eduki ezean nahikoa izango dela euskaraz ondo berba

egitea. Interesdunek honako toki hauetan egin beharko dituzte eskakizunak: Landako I kiroldegian eta Durangoko Arte eta Historia Museoa.

Bestalde, Durangoko Udaleko ordezkariak Euskal Trenbide Sareko ordezkariekin batu ziren joan zen barikuan. Bilera Bilbon egin zuten, ETSk bertan duen ordezkari-tza. Udalak adierazi

duenez, udalbatza osatzen duten lau alderdiak PERI 1 Ferrocarril proiektuari buruzko txostena lantzen dabilta eta txosten hori bera helarazi zioten, hain zuzen, Euskal Trenbide Sareari, azken honek bere ekarpenak egin ditzan. Udalak nabarmendu du "herritarren eskura" ipiniko den "txosten garden eta objektibo bat" egitea dela helburua.

Udalak lau batzar zabal egingo ditu galdeketa nondik norakoak azaltzeko

DURANGO • ANBOTO

Herri galdeketa martxoaren 14an egingo da, baina, data hori ailegatu baino lehen, udalak lau batzar informatibo egingo ditu herritarrekin eta auzo elkarteekin. Galdeketa nondik norakoak azalduko dituzte bertan. Batzar guztiak San Agustin kulturegunean egingo dituzte, eta, bistakoa denez, koronabirusari aurre egiteko babes neurriak hartuko dituzte guztietan.

Batzarren ordutegiak eta data honakoak dira: otsailaren 16an egingo dute euskarazko lehenengo saioa, 18:30ean, eta otsailaren 23an euskarazko bigarrena, 16:00etan. Gaztelaniazkoak otsailaren 17an, 18:30ean, eta otsailaren 23an, 18:00etan, egingo dituzte.

Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestrak Bartolome Ertzillako hiru ikasle hautatu ditu

Maider Zubizarreta, Iker Hernandez eta Eñaut Armentia EIJO arituko dira, Euskariko Ikasleen Jazz Orkestran



Eñaut Armentia, Maider Zubizarreta eta Iker Hernandez.

DURANGO • ARITZ MALDONADO

Maider Zubizarreta piano eta konbo ikaslea, Iker Hernandez bateria ikaslea eta Eñaut Armentia baxu elektrikoko ikaslea Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestran (EIJO) arituko dira. Hautaprobea gainditu dute eta aurrerantzean bertan jotzeko aukera izango dute. Gainera, Armentientzat bigarren aldian izango da, lehenengo ere bertan aritutakoa da eta jotzen. Honako hau ez da EIJO Bartolome Ertzillako Musika Eskolako ki-deak hautatzen dituen lehenengo aldian. 2015/2016 ikasturtean, Esti Ibarra abeslaria hautatu zuten; 2016/2017 ikasturtean, Markel Mardaras saxo ikaslea eta Jone Erzilla tronpetak ikaslea hautatu zituzten; eta 2018/2019 ikasturtean, Izaro Erzilla abeslaria hautatu zuten.

Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra Hezkuntza Sailak sortu zuen, 2014an. 23 plaza baino ez dira eskaintzen ikasturte bakoitzeko, eta ikasleek hainbat hautaprobea pasatu behar dituzte bertan sartzeko.

San Faustoko frontoia erabiltzaileentzat zabaltzea aztertzen dabil udala

Hainbat eskaera jaso dute herriko frontoiak zabaltzeko

DURANGO • JONE GUENETXEA

Durangoko hainbat herritarrek idatziak aurkeztu dituzte Durangoko udaletxean, Ezkurdiko eta San Faustoko frontoiak zabaltzeko. Frontonisean, palan zein esku pilotan jokatu gura duten herritarrek dira, eta, oraingoz, euren herrian ez dute lekurik horretarako. "Orain arte, inguruko herrietara joan behar izan dugu frontoiko kirolean aritzeko", azaldu du Txaber Odiagak, eskaera egin duen herritarretarikoa batek.

Durangon azpiegiturak egon badaudela argudiatuta, aurretiazko hitzordua hartuta frontoiak erabili ahal izatea da herritar

hauek udalari egiten dioten proposamenetarikoa bat.

Ane Abanzabalegi Durango Kirolak erakundeko arduradunak dioenez, San Faustoko frontoia zelan zabaltzea aztertzen dabil udala. "San Faustoko frontoiko tabernan obrak egin ditugu eta laster izango da prest. Herritarrek frontoia erabili ahal izateko, sarrera zelan kudeatu aztertzen gabiltza orain", azaldu du Abanzabalegik. Zinegotziak gogoratu duenez, orain urte batzuk frontoia zabalik zegoenean azpiegituran kalteak izan ziren. "Durango Kirolak bitartez, San Faustoko frontoia alokatzeko aukera ematea da asmoa", dio zinegotziak.

Geu Be elkarteak 2.000 euroko saria lortu du Eroskiren 'Krea' sariketan

Elkarteak aitortu du dirua "ondo baino hobeto" etorriko zaiela urte zail honi aurre egiteko

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Eta, halako batean, bultzadatxo bat. Keinu txiki bat. Elkartasunez beteriko sari bat. Geu Be elkarteak 2.000 euroko saria eskuratu du Eroskiren 'Krea' izeneko sariketan. Elkarteko kideek eguazten iluntzean jaso zuten saria, Eroski Bidaiek-ek Durangon duen ordezkartzan. Julen Bengoa Geu Be elkartearen arduraduna da. Aitortu du saria "poz-pozik" jaso dutela. "Asko eskertzen dugu laguntza hau, ondo baino hobeto datorkigula"

"Asko eskertzen dugu laguntza hau, ondo baino hobeto datorkigulako urte zail honi aurre egiteko"

lako urte zail honi aurre egiteko", adierazi du.

Eroskik urte batzuk daramatza 'Krea' izeneko sariketarako antola-

tzen. Sariketagaz, errekonozimendu korporatiboari lotutako proiektuak saritzen ditu, zelanbait. Aurtengo Geu Bera joan da saria.



Sari banaketa eguazten iluntzean egin zuten Eroski Bidaiek-en Durangoko ordezkartzan.

Durangaldeko musika taldeek elkartasuna adierazi diote Pablo Hasél rap abeslariari

Kantari katalanari espetxe zigorra ezarri diote "terrorismoa goratzea" eta "erregea iraintzea" egotzita



DURANGALDEA • ARITZ MALDONADO

Durangaldeko hogeita musika taldeek baina gehiagok agiri bat sinatu dute asteon. "Estatu zapaltzaileak musikari eta militante politiko bat kartzelaratu gura du erregimenaren miseria kon-

tatzeagaitik eta bere jarrera politikoak modu kontsekuentean defendatzeagaitik", salatu dute. Espainiako Auzitegi Nazionalak espetxe zigorra ezarri dio Haséli "terrorismoa goratzeagaitik eta Espainiako erregea iraintzeagaitik".

Zapatu honetan Plateruenari buruz egitekoa zen lan saioa atzeratzea erabaki dute

"Aste batzuk" barru zehaztuko dute saioaren data berria

DURANGO • ARITZ MALDONADO

'Plateruena ta gero zer?' dinamika barruan otsailaren 6rako deituta zegoen lan saioa atzeratzea erabaki dute antolatzaileek, "Durangoko osasun egoera larria delako orain". Kontua da Durango eremu gorrian sartuta dagoela urtariletik, eta ostalaritza itxita dagoela. Dinamika garatzen dabiltzan antolatzaileek ez dute data berrikeri zehaztu oraindik, baina aurreratu dute "aste batzuk" barru egiteko asmoa dutela, "betiere egoerak baimentzen duen baldintzetan".

Edozelan ere, 'Plateruena ta gero zer?' dinamika kideek


herriarren ekarpenak jasotzen jarraitu gura dute. Helbide elektroniko bat ipini dute horretarako. Gura duenak plateruenatagero@gmail.com helbidera idatzi dezake ekarpenak egiteko.

Proiektu berri bat

Durangoko herritar talde bat Plateruena kudeatzeko "proiektu berri bat garatzen" hasi zen urte hasieran, proiektua Durangoko Udalarai aurkezteko asmoz. Dinamikako kideen esanetan, etorkizuneko Plateruenak "ikusle moduan ez ezik, kultur sorkuntzan hezteko gune bat" ere izan beharko luke.

Mankomunitateak eskualdeko 70 bat adinduren arreta bermatu zuen iaz

Mankomunitateko Adinekoen zerbitzuak telefono bidezko laguntza, arreta psikologikoa eta etxetik egiteko ikastaroak bermatu zituen 80 urtetik gorako 70 herritarrentzat. Adinduen kolektiborik zaurgarrienetarikoa da, pandemiak haiei eragin die gehien eta



Aldatzekua, Elorrioko nagusien etxea.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Mankomunitateko Adinekoen zerbitzuak iaz eskainitako zerbitzuen balantzea egin du. Honako datu hau kaleratu du: iaz, 80 urtetik gorako 70 laguni baino gehiagori eskaini zizkien telefono bidezko jarraipena, telefonoz lagunduta etxetik egiteko ikastaroak, eta laguntza psikologikorako programak. Datu horren garrantzia nabarmentzeko, kontuan hartu behar da izurriak helduenen adinartea kolpatu duela batez ere.

LAGUNgune, martxan

Aurrerantzean ere bide horretatik sakonduko duela aurreratu du Mankomunitateko Adinekoen Zerbitzuak. Horregaitik garatu du, besteak beste, LAGUNgune zerbitzu berria. LAGUNgunek arreta psikologikoa eskaintzen die koronabirusak eragindako ondoeza duten 60 urtetik gorako herritarrei. Zerbitzua doakoa da eta joan den abenduan ipini zen martxan. Dagoeneko Durangaldeko zortzi bat herritarrek jo dute bertara. "LA-

GUNguneren helburua konfiantzazko eta segurtasuneko espazio bat ahalbidetzea da, profesionalak gidatuta, bizipenak partekatzeko, beldurrak edo kezak adierazteko, edo, besterik barik, berba egiteko eta barrua husteko", azaldu du Mankomunitateak.

Bestalde, iaz eskainitako ikastaroak ere aipatu dituzte. Memoriaren entrenamendurako edo lasaitasuna bilatzeko ikastaroak eskaini zizkieten Durangaldeko 55 bat herritarri.



Herritar talde batek 'Plateruena ta gero zer?' dinamika lantzeari ekin dio.

Sahararren aldeko karabana solidarioan, elikagaiekin barik ekarpen ekonomikoa eginda lagundu ahal izango da aurten

Koronabirusa dela-eta, aurten, Río de Oro elkarteak diru-funtsak jasoko ditu ohiko elikagaiak barik. Dagoeneko zabalik dago ekarpenak egiteko epea

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Durango Río de Oro elkarteak sahararren aldeko Karabana Solidarioa antolatzeari ekin dio, eta ekarpenak egitera dei egin die Durangaldeko herritarrei. Orain arte elikagaiak batu izan dituzte urtero-urtero, baina, aurten, izurria dela-eta, ekarpenak dirutan jasotzea erabaki dute. "Ezingo gara inguruko supermerkatuetara joan, eta, horrenbestez, diru-funtsak jasotzeko kanpaina bat martxan ipintzea bururatu zaigu. Jasotako funts guztiak (%100), jakina, jakiak erosteko eta Tindufeko errefuxiatu kanpalekuetara bidaltzeko baliatuko ditugu", azaldu du elkarteak.

Mendebaldeko Saharan hautsak harrotu dira azken egunetan. Fronte Polisarioaren eta Marokoren artean gerra piztu da berrir. Testuiguru horregaitik, esangura berezia hartzen du aurtengo Karabana Solidarioak. Río de Oro azaldu duenez, "larriagotu" egin da lehendik ere larria zen egoera. "Sahararentzat hil ala bizikoa den kanpaina honetan parte hartzeko deia egiten



diegu Durangaldeko herritarrei, sinestuta baikaude, egoera latza den arren, guztion artean lortuko dugula trailerra 24 tona laguntza humanitarioz zamatuta eta beharizana duten horiengana helaraztea", esan dute. Ekarpentak egiteko epea hilaren 12ra arte dago zabalik.

Fronte Polisarioaren eta Marokoren arteko gerra berpiztu denez, "hil ala biziko" kanpaina da

lazko Karabana Solidarioaren irudi bat.

Bizum edo transferentzia

Ekarpent ekonomikoa egin gura duenak aukera bi ditu. Bizum-en bitartez dirua bidaltzea edo ohiko banku transferentzia bat egitea. Lehenengoaren kasuan, honela egin behar da: Bizum aplikaziora sartu eta sakatu "eman" botoia.

Segidan, bilatu Río de Oro elkarte (01955 kodea) eta eman dirua dohaintzan. Transferentzia egitea gurago duenak Río de Oro elkartearen kontu korrontean sartu

Jasotako diru funts guztiekin elikagaiak erosiko dituzte saharar errefuxiatuentzat

dezake dirua: ES90 3035 0129 11 1290034483 zenbakia ipini dute herritarren eskura.

4, 8 edo 12 euro

Elkarteak jakinarazi du hiru ekarpen mota daudela: lau eurokoak, zortzi eurokoak eta hamabikoak. Lau eurogaz, pasta, azukre, lekale eta arroz kilo bana erosiko dute. Zortzigaz, olio eta konpresa pake bat gehituko diote lehen aipaturakoari. Hamabigaz, hiru atun lata eta sardina lata bat gehituko diote aurreko guztiari.

Eskualdeko Berbalagunak euskaraz egiten lagunduko dieten herritarren bila dabilta

Berbalaguneko arduradunek adierazi dute ez dabiltzala irakasle edo aditu rola jokatu duten kideen bila; euskara praktikatu gura duenari laguntzeko herritar bila baino

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Durangaldeko Berbalagunak euskara praktikatzeko lagunduko dieten herritarren bila dabilta. Eta ez, ez dadila inor erratu. Kontua ez da irakasleak behar dituztela. Ez dute aditurik bilatzen; euskaraz ondo dakitenen eta eurei laguntzeko prest dauden herritarren bila dabilta. Berbalagunak astean behin elkartu ohi dira, 4tik 6 lagunera arteko taldetan. Normalean, taber-

netan elkartzen dira, baina koronabirusaren eraginez euskaltegietan eta kultur etxeetan batzen dabilta azkenaldian. Ordubetearen arizen dira euskara praktikatzeko.

Egitasmoaren antolatzaileek adierazi dutenez, gaur egun 25 bat dira Berbalagunen inskribatuta dauden Durangaldeko herritarak. Abadiñon, Berrizen, Durangon, Elorrian eta Iurretan daude taldeak. Taldekide bakoitzak rol bat

izaten du. Bidelaria da bata, hau da, euskara praktikatu gura duena. Eta Bidalaguna bestea, aurrekoari bidea egiten eta euskara praktikatzeko lagunduko diona, hain zuzen ere. Bada, bigarren horien beharizana dute Berbalagunek.

Euskaraz bizitzeko ahalegina egiten duenari lagundu gura diotanak 639400 786 telefono zenbakira deitu edo durangaldea@aek.eus helbide elektronikora idatzi dezake.



Durangaldeko Berbalagunen 'Mendilagun' egitasmoa, 2020ko otsailaren.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurretan - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko otsailaren 5a
19. urtea - 837. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Zornotzako merkataritza sustatzeko atari digital berria martxotik aurrera egongo da erabilgarri

Zornotzako Udala Zornotzanerosi izeneko plataforma digitala sortzen dabil. Tresna berriak erakusleiko bat eskainiko die Zornotzako establezimenduei. Euren produktuak Interneten bitartez kontsultatzeko edo erosteko aukera emango du atariak. Udalak dendarien salmentak handitzea aurreikusten du

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Lanean dabilta oraindino, baina laster ikusiko du argia. Zornotzako Udaleko Enplegua eta Ekonomia Sustatzeko Saila herriko merkataritza bultzatzeko plataforma digital bat sortzen dabil. Bertan, herriko merkatarien zerbitzuak ipiniko ditu ikusgai. Tresna berriak Zornotzanerosi izena izango du eta aurreikuspenen arabera martxorako egongo da martxan. Hiru aukera eskainiko ditu. Batetik, establezimendu

Udalak herriko dendarien bezero potentzialak eta salmentak handitzea gura du tresna berriagaz

bakoitzak bere fitxa propioa egiteko aukera izango du. Bestetik, dendariak erakusleiko moduko atal bat edukiko dute euren zerbitzuen eta produktuen berri emateko. Azkenik, erosketak egin ahal izateko atal bat ere izango du atariak.

Udal iturriek azaldu dutenez, plataforma "lehiakortasuna hobetzeko eta tokiko merkataritza-



Zornotzako San Migel kalea herriko komertzioen salerosketa gunearikoa bat da.

ren berehalako eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko diseinaturata" egongo da. Hain zuzen ere, merkatariei "bezero potentzialak" handituko zaizkiela eta "seguruenik" salmentak ere areagotu egingo zaizkiela aurreikusten du udalak.

Gastuak

Udalak bere gain hartuko ditu plataforma digitala sortzeko kostua eta datozen urte bietarako mantenu lanak. Baina behin urte bi horiek pasatuta, kudeaketaren gastu osoa establezimenduak hartuko du, udalaren esanetan "establezimendu horrek sare sozialetan publizitatea egiten jarraitu gura balu". Hirugarren urtetik aurrera, oster, bestelako gastu batzuk egongo dira. Kasu horretan, establezimendua bera arduratuko da atari digitalaren mantentze teknikoaz.

"Tokiko merkataritzari bultzada sendo bat emateko itxaropenez", udalak Zornotzanerosi plataforman izena ematera deitu die herriko establezimenduei. Informazio gehiago gura duenak 946300002 telefono zenbakira deitu edo sustapena@amorebieta.eus helbide elektronikora idatzi dezake.

Munarri gaztetxeko kide bat epaituko dute "ustezko usurpazio delitua" egotzita

Gaztea martxoaren 8an epaituko dute, Durangoko epaitegian. Gaztetxeko kideek protestak antolatu dituzte



Gaztetxea forjarien jauregian dago.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Munarri gaztetxeko kideek adierazi dutenez, bertako gazte bat epaituko dute Durangoko auzitegian, "ustezko usurpazio delitua" egotzita. Epaiaketa martxoaren 8an izango da eta gaztetxeko kideek mobilizazioetara deitu dute datozen egunetarako. Gaur bertan bizikleta martxa egingo dute herriko kaleetan, epaitua izango den gazteari "elkartasuna adierazteko". Horrez gainera, elkarretaratzeak egingo dituzte hilaren 12an eta 19an, 17:30ean. Azkenik, manifestazioa antolatu dute martxoaren 6rako.

Gaztetxeko kideek diotenez, eraikina okupatu zutenetik "jazarpen poliziala" eta "mehatxuak" jasan dituzte, eta gaineratu dute horiek guztiak "gaztetxea kikiltzeko saiakerak" direla. "Datorrena datorrela, gune autogestionatuen alde" egingo dutela berretsi dute, euren esanetan "herriaren alde egiten den okupazioa ez delako delitua".

Zornotzako Txiki Otaegi kalea egokitzen hasi dira

Kaleko zoladura aldatu eta argiztapena hobetuko dute, besteak beste. Lanek 83.000 euroko aurrekontua dute

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udala Txiki Otaegi kalea berrurbanizatzen hasi da asteon. Besteak beste, arkupeetako zutabeak birmoldatuko ditu eta zoladura modu uniformeant estaliko du. Eremuari segurtasun handiagoa eskaintzeko asmoz,

argiztapena ere hobetuko dutela gaineratu du udalak.

Udalaren esanetan, lanokina kalea "atsegin eta erakargarri" bihurtzea dute helburu, modu horretan "pasabide izateari utzi diezaion". Proiektuak 83.000 euroko aurrekontua du.



Lanak amaituta, kaleak honako itxura hau hartuko du gutxi gorabehera.

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Bagenekien aurten ez zela San Blas eguneko azoka egongo. Baina ez genekien zer gertatuko zen urteroko kordel, erroskillak, euskal pastel eta enparauekin. Erantzuna hemen dugu. David Tejedor (Zornotza, 1987) Roskogintza enpresako kidea da. San Blas egunean postua ipintzerik izan ez duenez, etxerik etxe ibili da erroskillak, pastelak eta kordelak saltzen.

Beraz, feriarik feria ibiltzea da zuen lanbidea.

Bai, produktuak egin eta saldu egiten ditugu. Erromerietan, ferietan, Erdi Aroko kutsua duten azoketan eta halakoetan ibiltzen gara, urte osoan zehar.

Nondik datorkizue ferietako saltzaile izateko lanbidea?

Gurea familiako hirugarren belaunaldia da. Aitita-amamak saltzaileak ziren. Gure aita ere saltzailea zen, eta produktuak etxean ekoizteari ere berak ekin zion. Orain bost urte, Cristina arrebak eta biok hartu genuen negozioaren ardura. Zornotzan dugu produktuak ekoizteko lantegia.

San Blaseta urtero joaten zarete?

Bai, San Blaseta urtero, eta, egun horretan, baita Bilboko San Nikolas eguneko azokara ere. Baina bai, Abadiñora beti. Hiruzpalau postu ipintzen ditugu feria inguruan sakabanatuta.

Baina, jakina, koronabirusak bazterrak nahastu dizkizue zuei ere. Azokarik ez urte osoan. Zelan egiten diozue aurre egoerari?

Produktuak etxerik etxe salduta. San Tomas azokaren bueltan, jendea deika hasi zitzaigun. Produktu eske deitzen ziguten, eta guk lantegia zarratuta genuela erantzuten

“Urtero joaten gara San Blaseta; hiruzpalau postu ipintzen ditugu azokan”

Azokarik egon ez denez, David Tejedor saltzaile zornotzarra etxerik etxe ibili da kordelak, pastelak eta erroskillak saltzen



“**Mezu asko jasotzen ditugu, eta nagusienak dira euretariko asko. Niri egundoko ilusioa egiten dit**”

genien. Baina, halako batean, "zer gaitik ez dugu etxerik etxeko zerbitzua ematen?", pentsatu genuen. Eta halantxik hasi ginen, abendu hasieran. San Tomas eguna ondo joan zen, eta, hori ikusita, San Blasei begira lan egitea pentsatu genuen. Jendearen erantzuna ona izaten ari da. Mezu asko jasotzen ditugu. Eta nagusien eskariak dira asko. Niri

behintzat egundoko ilusioa egiten dit.

Etxean jasotzeko zein produktu eskatu daitezke?

Pack moduko batzuk saltzen gabil-tza. 20 euroren truke, kilo batetik kilo eta berrehun gramora bitarteko euskal pastel bat, dozena bat erroskillak zuri eta dozena bat kordel eramaten ditugu.

Seguru irakurle askok zuen kordel, pastel eta erroskillen falta igarriko zuela aurten. Zelan ipini daitezke zuekin harremanetan?

664175093 telefono zenbakira deituta. Produktuak 24 orduren bueltan izango dituzte etxean. 48 orduren bueltan, segun eta eguneko zein ordutan deitzen duten.



Eskualdeko herririk gehienetako egoerak hobera egin du astebetean.

Zornotza eremu gorritik irtetear da; Durangon ere egoerak hobera egin du apurka

Zornotzako intzidentzia tasak beherantz egin du 16 egunean

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO

Eremu gorrian dauden Zornotzako, Durangoko eta Elorrioko egoerak hobera egin du azken astean. Zornotzak urtarrilaren 19an jo zuen goia. Egun hartan, intzidentzia tasa 1.270ekoa zen, aurreko egun bien artean 50 positibo pilatuta. Harrezkero, 16 egunean tasak behera egin du, 549an kokatu arte. Eremu gorritik irteteko muga 500ean dago.

Durangoko intzidentzia tasak urtarrilaren 28an jo zuen goia: 1.337. Harrezkero, sei egunean, beherantz egin du, 1.102an kokatu arte.

Elorrioren intzidentzia tasa beherantz doa urtarrilaren 31tik: 657tik 550ra jaitsi da. Eremu gorrian da- goen eskualdeko azken herrian,

Abadiñon, egoera ez da hain ona. Intzidentzia tasak 11 egun eman ditu gorantz: 296tik 709ra igo da. Atzo, 709an mantendu zen.

Bestalde, Berrizen intzidentzia tasak beherantz egin du azken be- deratzi egunetan eta 600ean dago. Atxondon zazpi egunean be- herantz egin ostean, atzo apur bat igo zen (649ra).

Iurretan, urtarrilaren 15etik 27ra izan zen gorakada nagusia: 271tik 1.437ra igo zen tasa. Harrezkero, zenbaki horren bueltan dabil.

Azkenik, Zaldibarko egoera kezagarria da tasak gorantz jarrai- tzen duelako. Azken bost egune- tan, 30 positibo berri atzeman dira eta intzientzia tasa 1.707an dago.

130 iurretarek taxi- auzunerako erabiltzaile txartela berriztatu dute

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak taxi- auzune zerbitzua martxan ipini zuen 2009an, hiriguneko zerbitzua baserri inguruetara hurbiltzeko helburuagaz. Eta zerbitzua "oso egonkortuta" dagoela aitortu du Iñaki Totorikaguena alkateak. Urtarrilean zehar, zerbitzua erabiltzen duten herritarrek erabiltzaile txartela berriztatu behar izan dute. Bada, 130 lagu- nek egin dute txartela egiteko eskaria, Totorikaguenak azaldu duenez.

Astelehenetik barikura 07:30etik 20:00etara, eta zapa- tuetan 09:00etatik 14:00etara erabili daiteke zerbitzua, 688 618 690 telefono zenbakira deituta. 2020an 177 txartel banatu ziren eta 1.516 bidaia egin ziren.

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

 **anboto**

Mañariko Udalak zerbitzu berria martxan ipini du herritarren etxeetara botikak eramateko

Mañariar guztientzat bideratuta dago eta doakoa da; urgentziatzko eskaerak ere egin ahalko dira, urteko edozein egunetan eta ordutan

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko Udalak zerbitzu berria martxan ipini du botikak etxeetara eramateko. Herrian ez dago farmaziarik eta alternatiba bat eskaini gura dute. Gaur egungo egoera ere kontuan hartu dute zerbitzua eskaini ala ez erabakitzerakoan. "Proba moduan ipini dugu martxan. Herriak konfinatuta eta perimetralki itxita daudenez, herritarrentzat ezinbesteko zerbitzua dela iruditzen zaigu", adierazi du Ainara Otxotorena alkateak. Udalfarma izeneko enpresa kontratatu dute zerbitzua eskaintzeko.

Doako zerbitzua izango da; hau da, garraioaren kostua udalak ordainduko du. Beste ezaugarri bat da herritar guztientzako zerbitzua dela.

Erabiltzaile bakoitzak bere kofiantzazko farmazia aukeratu ahalko du botikak erosteko

Zerbitzuaz baliatu ahal izateko, udaletxera joan behar da, osasun txartelagaz eta kontu korronte zenbakiagaz (medikamentuak handik kobratzeko). Une horretan, herritarrek farmazia aukeratzeko

modua ere izango dute; hau da, euren aukeraturiko farmazietan hartutako botikak jasoko dituzte etxean.

Ohiko banaketan kasuan, hileko egutegian zehaztuko dira botikak banatuko diren egunak

Martxan jarri den zerbitzu berriak kasu bi barneratzen ditu: ohiko botiken banaketa eta urgentziatzko botiken banaketa. Ohiko banaketaren kasuan, hilean egutegi bat markatuko da eta bertan zehaztuko da etxerik etxeko banaketak asteko zein egunetan egingo diren. Ohiko erabiltzaileek udaletxean jaso ahalko dute egutegia informazio horrekin. Urgentziatzko kasu baten aurrean berriz, erabiltzaileak edonoz ipini ahalko dira kontaktuan banatzaileagaz, zerbitzua urteko egun guztietan eta eguneko 24 orduetan egongo delako martxan. Unean-uneko kasuei zerbitzua ematea da helburua. Horrelako kasuetan, momentuan bertan ordainduko dira botikak, datafono izeneko sistemaren bitartez.



Udalfarma izeneko enpresa kontratatu dute zerbitzua eskaintzeko.

Auzo-taxirako txartela eguneratzeko aukera Mallabiko udaletxean

MALLABIA • J.D.

Iazko maiatzetik martxan da auzo-taxia Mallabian, auzoak eta herrigunea lotzeko helburua duen zerbitzua. Urte berriagaz, identifikazio-txartelak atera ahal izateko epealdia hasi du udalak: edo iazkoa berritu daiteke eta berri bat egin.

Tramiteak udaletxean egin daitezke. Nortasun Agiri Nazionalaren kopia bat eta karnet tamainako argazki bat eraman behar dira.

Udalak 2019an eman zituen auzo-taxia martxan ipintzeko urratsak. Lehenengo, taxilari plaza bat esleitu zuen. Ezinbesteko pauso bat zen auzo-taxia sortzeko bidean. Ondoren, ordentza landu, udalbatzarrean onartu eta iazko maiatzetik martxan da zerbitzua.

Izurtzan ipiniko duten semaforo sistemak emaitza onak eman ditu beste herri batzuetan

Ibilgailuen abiadura erregulatzeko 'uhin berdea' izeneko sistemaren bitartez, %40 gutxitu da Abanto-Zierbenako Las Carreras auzoko ibilgailuen gehieneko abiadura, Bizkaiko Aldundiko iturrien arabera

IZURTZA • J.D.

Izurtzako errepidean egiten dabil-tzan aldaketen artean, hiru semaforo berri ipiniko dituzte. Beraz, laster, zazpi semaforo egongo dira Tabirako biribilgunearen eta Elizalde auzoaren artean. Herrigunetik igarotzen diren ibilgailuen abiadura moteltzea da helburua.

Semaforo guztiak sinkronizatu egongo dira. Sistema horri 'uhin berdea' deitzen zaio eta Bizkaiko Aldundiko Mugikortasuna, Garraioa eta Errepideak Saileko iturrien arabera, emaitza onak eman ditu beste herri batzuetan. Abanto-Zierbena herriko Las Carreras auzoan, esate baterako. "Datuen arabera, Las Carrerasen 'uhin berdea' sistema instalatu ondoren, gehieneko abiadura %40 murriztu



Egunotan hainbat lan egiten ari dira Izurtzatik igarotzen den errepidean.

dela egiaztatu da", azaldu dute Aldunditik.

2019an Iurretako N-634 errepidean ipiniriko semaforoek ere sistema beragaz funtzionatzen dute. Busturiako BI-2235 errepidea, Gauteigiz-Arteagako BI-2238 errepidea eta Galdakaotik Etxebarrira doan N-634 errepide zatia dira uhin berdea sistema txertatuta dagoen beste toki batzuk.

Funtzionamendua


'Uhin berdea' sistema semaforo denak sinkronizatzean datza; hau da, koordinatuta funtzionatzen dute. Horrela, tokiko abiadura muga errespetatzen duten ibilgailuek —50 km orduko, Izurtzaren kasuan— semaforo guztiak berde aurkituko dituzte, eta abiadura muga gainditzean gorri ipiniko da eta zirkulazioa eten egingo du, noranzkoa edozein dela ere.

Obren iraupenari dagokionez, "hilabetekoa izatea espero da, udalak ingurua urbanizatzeko obrak egiten dituen neurrian", azaldu dute Aldunditik.



merkataritza gida sarean

anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida BERRIA
euskaraz eta sarean!***

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)

Oposizioak gobernu taldeari leporatzen dio Iguria enpresa Elorriotik joatea

Iguria S.A. enpresak Elorriion geratzeko aukera "baztertu" duela dio Gobernu Taldeak



Gaur egun, 65 langile daude Iguria enpresan.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

EAJk eta Herriaren Eskubideak azaldu dutenez, Elorriion dagoen Iguria S.A. enpresa Igoerrera lekualdatuko da. Eta oposizioak alderdi politiko biek gobernu taldeari leporatu diote hori. Alderdi jeltzaleak azaldu duenez, Iguria enpresan 65 langile daude gaur egun, eta Teknialiaren laguntzagaz instalazioak handitzeko beharizana izan dute, langile kopurua bikoiztea aurreikusita. Hori horrela, 2019ko otsailan enpresak Hiri Antolamenduko Plan Orokorra puntualki aldatzeko eskatu zuela azaldu du EAJk, bere instalazioa alboko landara zabaltzeko. "EH Bilduk orain urte

bitik izan du enpresaren eskakizuna eta ez da gai izan erantzunik emateko. Ez zuten ahaleginik ere egin Plan Orokorra aldatzeko, ez zion aukera bideragarriarik eskaini enpresari", esan du EAJko Mikel Arruabarrenak.

Elorrioko Herriaren Eskubidea SQ-2D - Elkarrekin Podemos alderdiko kideek, ostera, Iguria lekualdatzea gobernu taldearen hirigintza-kudeaketa txarragaitik dela kritikatu dute.

Gobernu taldeak, bere aldetik, "atsekabez" hartu du enpresaren lekualdatzea. Azaldu dutenez, enpresak lursail berri bat izateko benetako aukera baztertu ostein

erabaki du Igoerrera lekualdatzea. "Hasieratik landu genuen gaia, aukera posibleak mahaigaineratuta. Beraz, enpresak mahai gainean geratu zen. Orain hilabete inguru eurekin hartu-emanetan ipini ginen eta beste herri batean aukera ona azaldu zitzailea eta lekuz aldatzea erabaki zutela esan ziguten", adierazi dute EH Bildukoek. "Nazkatuta nago oposizioak *fake news* bidez herritarrek desinformatzeko eta engainatzeko duen jarreragaz. Prest nago edozein herritarri dena azaldu eta enpresagaz izandako hartu-emanen berri emateko", amaitu du alkateak.

Ostalariek otsailaren 18ra arte dute epea laguntzak eskatzeko

Elorrioko Udalak laguntza ekonomikoa emango die ostalaritzako eta sukaldaritzako establezimenduei



ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak laguntza ekonomikoa berezia martxan ipini du herriko ostalaritza eta sukaldaritza sektoreko establezimenduei begira. Hori horrela, interesa dutenek otsailaren 18ra arte izango dute aukera diru laguntza eskatzeko.

Udaletik azaldu dutenez, Eusko Jaurlaritzak alarma egoeran ezarritako neurriek, besteak beste jardueren murrizketek eta mugek, ostalaritzaren, sukaldaritzaren eta jatetxeen sektorean eragindako ondorio ekonomikoak arintzea dute helburu laguntzak emanda.

Udalak 46.500 euroko diru partida ekonomikoa erabiliko du laguntza horietarako, eta estable-

Establezimendu bakoitzari gehienez 1.500 euroko laguntza emango diotela azaldu du Elorrioko Udalak

zimendu bakoitzari 1.500 euro emango zaizkio, gehienez. Eskariak Herritarren Arretarako Zerbitzuan aurkeztu beharko dira.

Berrizek bat egin du euskarazko ikasketak sustatzeko kanpainagaz

15 eta 16 urtera arteko gazteei bideratuta, 'Nahi dudalakol' kanpaina martxan ipini dute Bizkaiko hainbat herritan

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Bizkaiko hainbat udalerrik 'Nahi dudalakol' kanpaina martxan ipini du, euskarazko ikasketak sustatzeko asmoz. Dinamika horren barruan Elorrioko Udalare badago, eta orain Berrizkoa ere bai. Bertan, Bizkaiko 15 udalerritako eta hiru mankomunitetako 15 eta 16 urteko gazteek eta euren gurasoek parte hartu dute.

Udaletik azaldu dutenez, DBH euskaraz egin duten gazteek hortik aurrerako ikasketak euskaraz egitea da kanpainaren helburu nagusia.

Kanpainaren ardatza www.nahidudalakol.eus webgunea da. Bertan, gazteek Batxillergoa zein Lanbide Heziketa euskaraz egi-

teko dituzten eskaintzen berri jasotzen dute. Horrez gainera, unibertsitateko eskaintza zein den ikusteko aukera ere ematen die webguneak gazteei. Etorkizunera begira izan ditzaketenez zalantzak argitzeko ere balioko diete.

Webgunean sartu eta inkesta betetzen duten gazteen artean hainbat opari zozkatuko dituzte

Bestalde, webgunean sartu eta bertan dagoen inkesta betetzen dutenek hainbat sari irabazteko aukera izango dute: Ipad bat, Homopod bozgorailu inteligentea eta 200 euroko bonu bat kultura eta kirol materiala erosteko.

Herritarren eskariari erantzunez, Atxondoko Udalak Axpeko jolasgunea konpondu du

Atxondarrek aurrekontu parte hartzaileetan eskatutako moduan, udalak Axpeko San Juan plazako jolas parkeko zoladura eta bertako joko-elementuak aldatu ditu

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Dagoeneko amaitu dituzte Axpeko San Juan plazako jolasgunea berritzeko lanak. Haur parkeko zoladura eta joko-elementuak aldatuta berriztu du jolasgunea Atxondoko Udalak.

Udaletik jakinarazi dutenez, berrikuntzak herritarren eskaerei erantzuteko egin dira. "Aurrekontu parte hartzaileetan egindako proposamenetarikoa bat izan zen, eta ekintza honegaz atxondarrek egindako eskaera bati erantzun diogu. Jolasguneako elementu guztiak berriztatu ditugu. Gainera, segurtasun neurri guztiak hartu ditugu txikiek gozatu dezaten", adierazi du Xabier Azkarate Atxondoko alkateak.



Axpeko San Juan plazako jolasgunea berriztu dute.



Gaizka Olabarri eta Nekane Bereziartua.

Hareek denporak!

Hitz liburu dendak 45. urteurrena bete du

DURANGO · JONE GUENETXEA

Hitz liburu dendak xarma berezia duela ezin da ukatu, informazioa karaktere gutxi batzuetan sare sozialen bitartez kontsumitzen den sasoi honetan. Internet bidezko erosketak etxeko ateraino ekartzea oinarritzko beharritza dela sinestarazten dabilen egunetan, desertuaren erdiko oasiak 45 urte

bete ditu. Lau hamarkada eta erdi dira Jesus Astigarragak, Leopoldo Zugazak eta Nekane Bereziartuak Hitz liburu dendak zabaldu zutela Durangoko Artekalean. Sortzaileek euren leku kutuna dute liburu dendaren sarrerako txokoan, mahaitxo eta guzti. Orain Gaizka Olabarri darama negozioa, baina haria ez da eten. Zorionak eta urte askotarako!

Politikan

Jesica Ruiz
PSE-EE



Geldi geldituko gara?

Joan den urtarrilaren 21ean eraso matxista bat izan zen Durangon. 20 urteko mutil batek kristalezko botila bat bota zion aurpegira bere bikotekide ohiari eta hainbat zauri eragin zizkion. Berdin zaigu zein izan zen arrazoa, ez dagoelako justifikaziorik. Zertan ari da pentsatzen gazte bat horrelako portaera izateko?

Oso kezkarria da irakurtzea hiru gaztetik batek saihestezintzat edo onargarritzat jotzen duela bikotekidearen ordutegiak kontrolatzea, bikotekideak familia edo lagunak ikus ditzan eragozteko edo zer arropa jantzi behar duten esatea. Honek adierazten digu indarkeria sexista mota guztiek ez dutela baztertze bera.

Oraindik ere maitasunari buruzko mito asko daude: laranja erdia, maitasunak ahal du guztia, jelskortasuna, eskusibitatea eta abar. Maitasunari buruzko sineste horiek guztiek bikote-harremanak toxiko bihurtzen dituzte. Indarkeria matxistarako bideak dira. Ez dira lehen begi kolpean ikusten diren erasoak, osagai psikologikoagoa duten erasoak baizik, identifikatzen zailagoak direnak.

Ez dezagun geure burua engainatu, oraindik oso urrun dugu berdintasuna eta lan asko dugu egiteko, batez ere gazteekin. Neskek ulertu behar dute inork ezin duela haiengatik erabaki eta askoz gutxiago euren bikotekideak.

Ezin gara besoak gurutzatuta geratu ikusten diren erasoak bata bestearen atzetik gertatzen ari direla. Denen arazo bat da eta lan egingo dugu elkarrekin behingoz?

Durangaldea asteen

Abadiñoko Udalak Ingurumen teknikari bat kontratatzeke prozedura hasiko du

Abadiño | Abadiñoko Udalak Ingurumen teknikari bat kontratatuko du. Udalaren esanetan, kontratazioa lan poltsa batetik egingo dute, "oraingoz". Eskatzaileek Ingurumen Zientzietako edo Ingurumen Ingenieritzako unibertsitate gradua izan beharko dute, baita 4. hizkuntza-eskakizuna ere.

Zornotzako Udala Zelaieta zentroa eraberritzen hasiko da laster

Zornotza | Zornotzako Udala Zelaieta zentroa eraberritzen eta egokitzen hasiko da laster. Lanek lau hilabete iraungo dute eta 77.963 euroko aurrekontua dutela jakinarazi dute udaletik. Hainbat fasetan egingo dituzte lanak. Lehenengoan, frontoiaren estalkia eta bigarren solairuko bulego eta lokalak egokituko dituzte, bestek beste.

Inauterietako ekitaldiak bertan behera utzi eta argazki lehiaketa antolatu dute

Elorrio | Inauterietako ekitaldi tradizional guztiak bertan behera geratu diren arren, Elorrioko Udalak mozorroen argazki lehiaketa antolatzea erabaki du. "Txiki eta helduek euren mozorroak erakustea eta zelan egin dituzten jakitea gura dugu", adierazi du Julene Lazkano zinegotziak. Lehiaketan lau adin tarte egongo dira eta bakoitzean sari bat egongo da.



Parte hartu ANBOToren Inauterietako argazki lehiaketan eta irabazi otzara bat

Durangaldea | Herrietan ohiko egitaraurik egon ez arren, baduzu asmorik inauterietan mozorrotzeko? Aurten ere, ANBOTok Inauterietako argazki lehiaketa antolatu du eta parte hartzeko gonbita egin die bere irakurleei.

Parte hartu gura dutenek 688 635 041 telefono zenbakira bidali beharko dute argazkia, otsailaren 18a baino lehen. Bestalde, otsailaren 18tik 22ra argazkirik gustukoena aukeratzeko aukera egongo da www.anboto.org-en. Egun horietan botorik gehien jasotzen duen argazkiak Euskotzaren emandako otzara bat irabaziko du.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA · Izen-abizenak · telefonoa · helbidea · Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Durangaldean gremioekin,
zerikusia duen negozioerik baduzu,

JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian





MASKULINITATEAZ

ANTZERKIA **ABADIÑO :: Otsailak 6**

'Fadoak entzuten zituen gizona' Xake Produizioak-en eskutik

Ander auto-stop egilea da eta Aya-
monten egitekoa den fado lehia-
ketara doa; Mario kamioilaria da
eta Burgosen (Espainia) batuko du
Ander. Biek egingo duten bidaia
da *Fadoak entzuten zituen gizona*

obraren abiapuntua, maskulinita-
tea hizpide hartuta. Iñigo Aranba-
rri, Ane Gabarain eta Kepa Errasti
arituko dira oholtzan, Getari
Etxegarairen zuzendaritzapean.
Errota kultur etxean, 19:00etan.

Otsailaren 5ean

BERRIZ antzerkia
'Alpha' (Ganso&Cia),
17:00etan, Berrizko Kultur
Etxean.

Otsailaren 6an

DURANGO musika
'Burdina-Hierro' (Adriana
Bilbao eta Beñat
Achiary), 19:00etan, San
Agustin Kulturgunean.
Dantza eta musika
ikuskizuna.

ELORRIO musika
Nahinota + Fitonskis
18:00etan, Elorrioko
Gaztetxean. Sortu zeneko
33. urteurrena ospatzeko
osatutako egitarauaren
barruan.

ZORNOTZA antzerkia
'Sagutxu tuntuna',
18:00etan, Zornotza
Aretoan. Urte bitik sei
urtera arteko neskato-
mutikoei zuzendutako
ikuskizuna.

Otsailaren 9an

ELORRIO ikus-entzunezkoa
Zinegaba: 'Tortura Euskal
Herrian', 19:00etan,
Elorrioko Gaztetxean. Sortu
zeneko 33. urteurrena
ospatzeko osatutako
egitarauaren barruan.

ZORNOTZA zinekluba
'La Mami', 19:00etan,
Zornotza Aretoan.

Otsailaren 10ean

BERRIZ deialdia
Irakurzale kluba
euskaraz, 16:30etik
10:00etara, liburutegian.
Otsailaren 10ean hasita,
hileko 2. eguaztenean.
Izena emateko epea zabalik
dago: euskara@berriz.eus
posta elektronikora
idatziz edota 94 622 53 69
telefono zenbakira deituta.
Whatsapp bidez ere eman
daiteke izena Berbalagunen
639 400 786 telefono
zenbakian.

Otsailaren 11n

DURANGO deialdia
Irakurzale kluba
euskaraz, 18:00etatik
19:30era, Bizenta Mogel
bibliotekan. Otsailaren 11n
hasita, hileko 2. eguenetan.
Izena emateko epea zabalik
dago: biblioteka@durango.eus
posta elektronikora
idatziz edota 94 603 00 41
telefono zenbakira deituta.
Whatsapp bidez ere eman
daiteke izena Berbalagunen
639 400 786 telefono
zenbakian.

Otsailaren 12an

ELORRIO ikus-entzunezkoa
'Oymyakon. Habitación
101' (Khea Ziater)
film eszenikoa,
19:00etan, Arriola
Antzokian.

ELORRIO bakarrizketa
'Txiki', 19:00etan,
Elorrioko Gaztetxean. 33.
urteurrena ospatzeko
antolatuta egitarauaren
barruan.

ZORNOTZA antzerkia
'Amaren intxaurrak'
(Pirritx, Porrotx eta
Marimotots) pailazoak,
17:15ean, Zornotza
Aretoan.

ZORNOTZA musika
Kontzertua:
Supercremalleras,
19:00etan, Zelaieta
zentroko kontzertu
gelan.

Otsailaren 13an

DURANGO ikastaroa
'Ongi Biziaren Filosofia'.
Adriana Rodriguez Salazar
soziologo kolonbiarrak
gidatuta, 10:00etatik
14:00etara, San Agustin
kulturgunean. Andereak
elkartek antolatuta. Lekua
mugatua izanik, sarrera
aurretiaz hartu behar da.
Arte eta Historia Museoa,
bost euroan.

ZORNOTZA kontzertua
Goazen 7.0, 12:30ean,
Zornotza Aretoan. Bigarren
emanaldi bat ere eskainiko
dute, 17:00etan.

Otsailaren 15era bitartean

ABADIÑO erakusketa
Baserriko eta kostaldeko
emakumeen lana
erakusten duen argazki
erakusketa. Traña-Matiena
eta Zelaietako kaleetan.

Martxoaren 14ra arte

DURANGO erakusketa
'Alegiazko paisaiak eta
ironiaren irudiak' (Ramon
Zuriarrainen margolanak,
Arte eta Historia Museoa.

Zine- ma

:: Berriz KULTUR ETXEA

· **El Padre**
barikua 5: 19:00
domeka 7: 19:00

:: Durango ZUGAZA

· **El Chico**
barikua 5: 18:00
zapatua 6: 18:00
domeka 7: 18:00
astelehena 8: 18:00
martitzena 9: 18:00
eguaztena 10: 18:00

· **Madam Curie**
barikua 5: 19:15
zapatua 6: 19:15
domeka 7: 19:15
astelehena 8: 19:15
martitzena 9: 19:15
eguaztena 10: 19:15

· **La lección de alemán**
barikua 5: 18:45
zapatua 6: 18:45
domeka 7: 18:45
astelehena 8: 18:45
martitzena 9: 18:45
eguaztena 10: 18:45

· **Noticias del gran mundo**
barikua 5: 18:45
zapatua 6: 18:45
domeka 7: 18:45
astelehena 8: 18:45
martitzena 9: 18:45
eguaztena 10: 18:45
· **El rey elefante**
zapatua 6: 17:00
doemeka 7: 17:00

:: Elorrio ARRIOLA

· **El Padre**
zapatua 6: 19:00
domeka 7: 19:00
astelehena 8: 19:00
· **El pequeño vampiro**
domeka 7: 16:00

:: Zornotza ARETOA

· **El Padre:**
barikua 5: 19:00
domeka 7: 19:00
astelehena 8: 19:00
· **Los Croods 2: Una nueva**
era
domeka 7: 12:00

ANBOTOkO agendan ezer iragarri
gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo
deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Durangaldeko hainbat sortzailek parte hartu duten 'Mundu berri bat guztiontzat' egitasmoa aurkeztu dute

Proiektu berri hau hamaika elkarteren eta 34 sortzailearen arteko elkarlana da eta Bizipoza elkarteak gidatuko du; 12 abestik eta 11 bideok osatzen dute

MUSIKA • A.M.

Bizipoza elkarteak gidaturiko proiektu berri hau, *Mundu berri bat guztiontzat* egitasmoa, hamaika elkarteren eta 34 sortzailearen elkarlanetik jaio da. Indarra batu dute hamabi abesti eta hamaika bideoklip sortzeko; CD eta DVD formatuetan kaleratu dute. Durangaldeko hainbat sortzailek ere parte hartu du proiektuan. Leire Bilbaok (*Amigo*), Unai Iturrirriak (*Haizearekin jolasean* Gari eta Josu Zabalagaz), Miren Amurizak (*Maskorraren ipuina* Zea Mayseko Aiora Renterriagaz) eta Igor Elortzak (*Bizipoza auzolan*, dozenaka lagunen parte hartzeagaz) letragile lez parte hartu dute abesti banatan. Mikel Urdangarin zornotzarrak, esaterako, *Amigo* abestian kantatu du, eta Eñaut Aiertzagüena iurretarra ilustrazioez arduratu da. CD eta DVDaren diseinuan, abesti bakoitzaren letragaz batera elkarleen marrazkiak ageri dira. Xabier Zabala konpositoreak sortu ditu hamabi abestietako doinuak.



Leire Bilbaok, Miren Amurizak eta Igor Elortzak parte hartu dute, besteak beste

Izaera bereziko gaiak lantzen dituzten haur eta familien 35 elkarteak osatzen dute Bizipoza. Horietariko hamaikak parte hartu dute *Mundu berri bat guztiontzat*

Hernaniko Biteri kultur etxean egin zuten aurkezpena.

lanean. "Gizartegintzan euskaraz eta bizipozez jardun gura duten herritarrei auzolan egitasmo eraginkorra eskaini gura diegu, bolutario sare bat osatuz", azaldu

zuten taldekideek aurkezpenean. Martxora bitartean, bideoklipak www.bizipoza.eus webgunean publikatuko dituzte. Hamaika elkarteek egunerokoan lantzen dituzten gaiak eta haien errealitateari buruzko abesti eta bideoklipak

'Amets bat eskuetan' iaz zendu zen Auzmendi Bizipozeko kidearen omenez sortu dute

dira. Elkarre bakoitzaren mezua musikaren, berben eta irudien bitartez gizarteratzeko helburua dute.

Auzmendi gogoan

Egitasmoko *Amets bat eskuetan* abestia iaz zendu zen Joxe Mari Auzmendiaren omenez sortu dute; abestiko hitzak bereak dira, gainera. Auzmendi Bizipozako talde eragileko eta Hik Hasi egitasmo pedagogikoko kidea izan zen.

Aitor Gonzalezek 'La muralla de la villa de Durango' liburua kaleratu du, Bizkaiko harresiei buruzko bildumako bederatzigarrena

SAIAKERA • A.M.

Aitor Gonzalez Gatok *La muralla de la villa de Durango* liburua kaleratu du oraintsu. Ia 300 orrialdetan zehar, Durangon gertaturiko aldaketa historikoak aletu ditu. "Eraikuntzak, erreformak, erabilerak, eraistek... Bertan eskaintzen den informazio asko inoiz argitaratu bakoa da", adierazi du Gonzalezek. Liburuak 51 argazki, plano eta grabatu ere biltzen ditu. Liburuko kapitulu bat, osorik, Santa Anako porta-

leari eskaini dio, "1744ko obra barrokoa".

Bizkaiko harresiei buruzko bildumako bederatzigarren liburua da Aitor Gonzalezek azken hau. Aurretik, Bermeoko, Portugaleteko, Bilboko, Lekeitioko, Urduñako,

Bizkaiko harresiei buruzko bildumako azken liburua izango dela adierazi du Gonzalezek

Plentziako, Balmasedako eta Elorrioko harresiei buruzkoak publikatu ditu. "Ia hogeitaz gortorleku bizkaitarrak aztertzen", esan du Gonzalezek. Bildumako azken liburua izango dela aurreratu du.

Hitzen eta Urriken salgai

Durangoko harresiei buruzko liburua bertako Hitz eta Urrike liburutendetan dago salgai. Gonzalezek 100 aleko "edizio mugatua" kalera-
tu du.



Gonzalez Santanako arkuaren alboan.

**Seguros Bilbao**

**RUEDA BILBAO
ASEGURUAK
Jabier Rueda**
Landako etorbidea, 1 DURANGO

ORDUTEGI BERRIA: Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 15:30era
Zenbaki hauetan emango diogu lehentasuna bezeroari:
946 20 27 10 / 688 86 11 37
Egunero eskainiko dizugu gure arreta ondorengo helbidean:
jrueda@segurosbilbao.com

hitz
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1#
DENDAOSTEKOAK
Uxue Alberdi (Susa)

2#
TANTAKA
Peru Magdalena (Balea zuria)

3#
GAUZAK DIRENA BALIRA
Joseba Sarrionandia (Pamiela)

4#
ETXEKO LANDAREAK
Jakoba Errekondo (Argia)

5#
POESIA, ZAURIEN UKENDU
Ainhoa Urien (Pamiela)

“Ez dakit zelan kudeatuko duten erre kara doan kutsadura. Arazo hori urte askoan izango dugulakoan nago”

Oraindino ere, Eitzagako bizilagunek arduraz bizi dute zabortegiko hondamendiak euren osasunean izango duen eragina. Osasun azterketa egitea eskatu diote Eusko Jaurlaritzari

ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

Instituzioek ahaztu egin dituztela sentitzen dute Eitzaga azoko bizilagunek. Hasieran adosturikoak ez direla betetzen ari diote. Oskar Morales auzokideak urtebetean bizi izan dutenari buruzko gogoeta egin du.

Urtebete joan da zabortegia amildu zenetik. Zelan bizi zenituzten otsail-leko egun haiek?

Lehenengo, harriduta, oso inpaktu handiko gertaera izan zen eta. Eta oso larrituta gero, hondamendia gertatzeaz gainera langile bi desagertuta zeudelako eta baserrietako jendeak bere etxetik irten behar izan zuelako. Gauza asko izan ziren, bata bestearen ostean. Lehenengo egunetan, trafiko handia eta kamioi eta emergentzia zerbitzu mordoa ikusi genuen, eta hondamendia handia izan zela konturatu ginen. Bigarren edo hirugarren egunean sutea piztu zen eta garrantzia kendu zioten. Gerora ikusi zen arnasten genbiltzana kaltegarria zela. Inguruetako udalek esaten ziguten etxean egoteko eta ez

aireztatzeko. Bestalde, sentsazioa dut momentu hartan inork ere ez zekiela zer egin behar zen, ez udalek ezta Eusko Jaurlaritzak ere. Autobidea, langile desagertuak, hondakinak, jendea bere etxetik kanpora...

Ingurumenaren aldetik, zabortegitik gertu bizi zareten auzokideok lasai zaudete?

Bere garaian ikusi genuen esaten zigutena onartu behar genuela. Ez ziguten txostenik erakutsi. Porruren baten edo besteren kalitatea neurritik kanpora zegoela esan ziguten, baina beti ahalegin du dira emaitzak ez erakusten. Inork ere ez du ikusi barazki haiei eginiko neurketaren emaitzarik. Gardentasun falta egon da gai honetan. Airearen kalitateari dagokionez, uste dut orain dela pare bat hilabete neurtzeari utzi ziotela.

Arduratzan zaituzte airearen kalitateak?

Gai honetan ikusi dugu oso aparatu bereziak behar zituztela hemengo elementuak neurtzeko. Gogoratzen dut dena ondo zegoela ziotela, eta ganoraz neurtu

eta laginak Madrilera bidali zituztela. Emaitzak jasotzerakoan, etxera bidali gintuzten denok. Dena ondo dagoela esan dute eta horrela hartu beharko dugu.

“

Kamioien joan-etorriak hamar hilabete iraun du. Auzo erditik pasatzen dira”

—

Hautsa igartzen duzue?

Haize bolada handiak daude, zaborregiko hautsa harrotzen dela ikusten dugu. Ez gara gai esateko zein partikula diren eta horrek zelan eragiten digun. Orain hori guztia lurragaz tapatzen dabilzanek, hori ez da hainbeste ikusten.

Hasieran uraren kalitateak ere piztu zizuen kezka. Orain zein egoeratan zaudete?

Zenbait hartune dago baserriaren kokapenaren arabera. Batzuek Bizkaiko Ur Partzuergotik hartzen dute ura, eta beste ba-

tzuek euren ur iturburu propioak dituzte. Ur iturburuak ondo zue dela esan zuten. Etxebarri base- rrian, ura moztuta dute. Urtebete joan da eta ur iturburu hori ez dakit deseginda edo kutsatuta ez dagoen. Kontua da ur zisternekin jarraitzen dutela. Zapaturu zister- na-kamioi bat joaten zaie. Zelan edo halan, badute ura etxerako, baina ezin dute ortua lantzen jarraitu, ezin dutelako ureztatu. Bestalde, urari dagokionez, albiste bat deigarri egin zaigu. Hamar hilabetean dena ondo dagoela entzuten egon gara. Bat-batean, orain hamabost egun Arantxa Tapiak esan zuen Verter dela erreken eta lurren kutsaduraren eratzule. Beraz, kutsatuta daude. Ez dakigu beheko geruza zelan dagoen. Plastikoa ipini dituzte gainean. Ez dakit zelan kudea- tuko duten erre kara doan kutsa- dura. Uste dut ez dakitela hori zelan konpondu. Arazo hori urte askoan izango dugulakoan nago. **Hasieran ez zegoen argi hondakinak bertan geratuko ziren ala beste no- rabaiteira eramango zituzten. Orain jakina da hondakinak Zaldibarren geratuko direla.**

Hasieran egin zuten segurtasun- kaiola behin-behinekoa izango zela esan zuten, baina guk bage- nekien ezetz. Bagenekien bertan geratuko zena. Arrazoiak genuen. Gardentasun falta izan dute. Horrez gainera, zabortegia bera handitu egin dute. Alboko lurrak desjabetu egin dituzte jabeiei ezer ere esan barik eta larrialdiko prozedura hasita. Maldako karga kentzen dabilza eta zabortegia handitu egin dute, %25 gutxie- nez. Beste zabortegi bat egin dute 800.000 metro kubo bertan

sartzeko. Ingurua orekatu dute. Gainera lurra botatzen hasi dira, zaborra tapatzeko. Belar apur bat botatzen dutenean, belarrak irtengo du. Beheko kaiola Etxebarri baserritik 100 metrora dago, eta han ere berdina egin dute. Lurra gainera bota. Badirudi ez dagoela zaborrik, baina inguruko hatsa jasanezina da.

“

Alkatea Eitzara etortzea eskatzen dugu, auzokideoi informazioa ematera”

—

Kamioien joan-etorriek ere eragin dize.

Kamioien joan-etorriak hamar hilabete iraun du. Auzo erditik pasatzen dira. Zarata, hautsa, errepide ondoan dauden etxee- tan arrakalak...

Zaldibarko Udalaren jarrera sarritan kritikatu duzue.

Zaldibarko Udaletik erantzun- nik eza eta indiferentzia jaso ditugu. Ez dute ardurarik hartu gura izan eta ez digute ezelango informaziorik eman. Ez dituzte gure beharrianak bideratu, eta erantzunik ere ez digute eman. Desagertu egin dira gure arazo- en aurrean. Badira zazpi hilabete ez dutela batzar bat ere antolatu Eitzagan auzokideak informa- tzeko. Gutxienez, informazioa

“

Airearen kalitatean ikusi dugu oso aparatu bereziak behar zituztela hemen dauden elementuak neurtzeko”

eta gardentasuna eskatzen di- tugu. Kamioiek etxetan sortu dituzten pitzadurei buruz berba egitera joan udaletxera, eta par- ticularren arteko gai bat dela erantzun digute. Ardura falta handia egon da auzokideekiko. Orain jakin dugu Zaldibarko Uda- la akusazio legez onartu dutela. Kausan egonez gero, izango dute informazioa. Alkatea Eitzagara etortzea eskatzen dugu, auzoki- deoi informazioa ematera.

Auzokideoi osasun azterketa egitea eskatu duzue. Jaso duzue erantzun- nik?

Behin eta berriro eskatu dugu osasun azterketa egitea. Hasieran baietz erantzun ziguten. Baina hori ez dut inoiz idatziz ikusi. Hasieran, Moreno sailburuor- deak esan zigun funts bat egongo zela hau guzti hau bideratzeko. Pandemia gertatu zen gero, eta konpromiso horiek desagertu egin dira.



Oskar Morales zaldibartarra, Eitzaga auzoan.

“Epaiketara ez goaz entzutera bakarrik, azken muturreraino ikertu dadin gura dugu”

Zaldibar Argitu! plataformak diru bilketa abiatu du kasuaren epaiketak sortuko dituen gastuei aurre egin ahal izateko



ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Hondakindegia amildu osteko ordu, egun eta asteak "frenetikoak" izan ziren Gaizka Zabarte zaldibartarrarentzat. Baita hurrengoak ere, osasun larrialdiak baldintzatu arren. Hamabi hilabeteen mobilizazioei eutsi die Zaldibar Argitu! plataformak: manifestazioak, elkarretaratzeak, lapiko-jotzeak eta oraintsu martxan ipini duten diru bilketa kanpaina dira horren adibide. Epaiketan akusazio lez onartu dute plataforma, Euskal Herriko Eskubide Sozialagaz batera egindako eskaera onartuta. Zabartek hurbiletik bizi du zaborteziaren gaia, izan ere, 90eko hamarkadan zinegotzia izan zen Zaldibarko Udalean. Ia urtebeteren ostean, Zaldibar Argituk sorrerako arrazoiei erantzun bila jarraitzen du: Langileak. Osasuna. Erantzukizunak.

Zelan gogoratzen duzu otsailaren 6ko arratsalde hura?

Zaldibarren laster konturatu ginen zaborteziak moztu zuela autobidea, bagenekien-eta han zegoela. Lehenengo ordu eta asteak frenetikoak izan ziren, alde guztietatik. Hasieratik ikusi zen katastrofe itzela zela. Goizaldean bertan suteak piztu ziren eta arnasten genbiltzan airea ez zela betikoa igarri genuen, ez zela ona. Gehitu horri gobernuaren mezu lasaigarriak, dioxina eta furanoak neurritik kanpora zudela adierazten zuten airearen azterketen emaitzak... Horren ondorioz, jendeak kalera irten zuen.

Dinamika mobilizatzaile bat hasi zen hor, espontaneo. Herrietako mobilizazioen ondoren, horiei jarraipena eman behar zitzailela erabaki zen. Horrela sortu ziren Zaldibar Argitu! plataformak Zaldibarren eta Eibarren; gero sortu ziren gainerakoak, Elgetan, Ermuan, Markinan eta Zallan. 'Zaldibar argitu' oihua zen gehien entzuten zena, berba bi horiek jendearen nahia batzen zuten. Aste frenetikoak izan ziren lehenengo horiek, plataformak sortu eta koordinatuz. Pandemia hasi bitartean, frenesi maila horrek jarraitu egin zuen, eta, ostean ere eutsi zitzaion, etxera sartu gintuztenean ere mantendu zirelako mobilizazioak, lapiko-jotzeekin, besteak beste.

Ia urtebeteko jarduera du Zaldibar Argituk. Egin duzue orain arteko baloraziorik?

Hiru berbako programa zehatz batez hasi ginen martxan: Langileak, osasuna eta erantzukizunak. Mobilizazioetan, hainbat lelo errepikatzen ziren: 'Gure bizitzekin jolasten ari zarete', 'Arriola dimisioa' eta horrelakoak. Martxoan hamaika puntuko aldarrikapen taula garatu genuen, baina hiru berba horiek izan ziren abiapuntua, eta hamaika hilabeteetan horiek izan dira gure ardatza, jendeak oso ondo ulertzen dituen eskakizunak direlako. Langileak, behargin bi bertan geratu zirelako. Osasunaren aldetik, inguruko herrietako bizilagunen kezka

nagusia izan zelako hasieran. Pentsa, hasierako egun haietan, zaborteziako kea usaindu eta ia mastikatu ere egin genezakeen. Eitzagako bizilagunek osasun azterketa egitea eskatu zuten, baina Jaurilaritzak ez zuen erantzun eta Zaldibarko Udalak ezezkoa

“

Pandemia hasi eta gero ere eutsi genien mobilizazioei, lapiko-jotzeekin, adibidez”

—

erantzun zien. Horrelako ingurumen hondamendi baten aurrean, bizitzaren aurkako delituak tarteke, baten batek izan beharko du erantzule, ezta? Inork ere ez du zalantzan ipintzen Verterreko enpresariak erantzukizun maila itzela dutela. Baina, eta hori ahalbidetu duenak? Enpresa horrek lehenengo egunetik eta azkenekora arte horrela jokatu badu, horretarako marko legal bat eduki duelako da. Eta ez hori bakarrik, baita kontaktuak ere. Beste kontu ezagun bat: amianto. Ingurumen Sailak bazekien han amianto zegoena, baimena eurek eman zutelako, besteak beste. Erreskate lanetakoak han egon ziren beharrean, goizaldera arte, bertan amianto zegoela jakin barik. Amianto isurtzeko

baimena ere aipatu daiteke. Adibideen zerrenda luzea da, baina pistak ematen ditu administrazioak zein ardura izan duen. Epaitegi batek argitu behar duen hainbat kontu dagoela uste dugu. **Zeure kasuan, zinegotzi lez ere eza-gutu duzu zaborteziaren gaia.**

Bai. 1995etik 1999ra bitartean, gehiengo zaborteziaren kontra zegoen, udalean egon ziren baldintzengaitik; Herri Batasunak, Alderdi Popularraren marka zuria zen alderdi independenteak eta EAJren bozeramaileek osatzen genuen gehiengo hori. Baina EAJ itsututa zegoen zaborteziaren alde. Zaborteziakoak hasita zeuden tramiteekin-eta, baina gehiengo horrek bultzatuta, 1998an Arau Ordezkatzailea (gaur egungo Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra) aldatu egin zen eta lege debekatu egin zen herrian zabortezi gehiago zabaltzea. 2002an, oster, udalak beste eraketa bat zuen, eta zaborteziak ahalbidetzen zituen legea onartu zuen. *Ad hoc* aldatu zuten legea. Batzuek oso gogor jokatu zuten zaborteziaren alde, eta horregaitik diogu erantzukizun politiko bat dutela. Modu horretan, azkenean lortu zuten zabaltzea. 2007an obra baimena eman zieten, eta 2011n, presaka, hauteskundeak baino pare bat aste lehenago jarduera baimena eman zieten. 30-32 urte bitartean betetzeko esplotazio bat edukitzea zen espektatiba, baina bederatzi urtean beteta egon da ia. Horrek erakusten du bertan egon den betetze erritmoa. Hainbat garraiolariren lekukotzak agertu dira, eta epaitegi gehiago

agertuko direla suposatzen dut, baina horrek erakusten du zela-ko betetze erritmoa zegoen han. Eta horrelako erritmoa edukita, posible zen hara heltzen ziren kamioietako kargak sailkatzea?

Zer espero duzue epaitegietatik?

Gure jarrera aktiboa izango da epaiketan, ez goaz entzutera bakarrik, azken muturreraino ikertu dadin gura dugu. Kontuan eduki behar da, baina, gu urrian aurkeztu ginela Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartagaz batera, eta aste honetara arte ez dugula epaitegietatik baiezkota jaso, akusazio lez jarduteko. Guk dakigula epaitegia ez da hasi bestelako diligentziarik egiten. Egia esanda, oso motel dabilta.

Kontua ez da sinistu edo ez sinistu epaitegiek argituko duten. Hemen, argitze lanetan, kazetari eta komunikabide batzuk dabilta lehenengo egunetatik. Ez bakarrik gaiaren berri ematen ari zirelako, benetan ikertzen ari zirelako baino. Eta guretzat oso garrantzitsua da hori, herritarrek jasotako informazio asko hortik etorri delako, Eusko Jaurilaritzatik etorri beharrean. Epaitegiak ere ikerketa eremu dira, baina beste eragile batzuk dituen, argi eta garbi; kazetariak ekidin daiteske, baina epaitegi deitu dituztenek dena deklaratu beharko dute. Eta hor beste dimentsio bat hartuko du ikerketak. Ez dakigu zein norabide hartuko duen honek guzti honek, ez zein baliabide izango dituen epaitegiak. Guk ez dugu pronostikorik egingo, baina hor egongo gara, epaiketa ahalik eta ondoen egin dadin.

Diru bilketa kanpaina abiatzea erabaki duzue.

Epaiketak gastu batzuk ekarriko dituela ikusi genuen. Hori dela-eta, diru bilketa kanpaina bat ipini dugu martxan www.itsulapikoa.eus atarian, herritarren ekarpenak jasotzeko. Espero dugu jendeak erantzutea, bestelako mobilizazioetan egin duten moduan.



12 hilabeteren ondoren Joaquín Beltrán beharginaren bila jarraitzen dute. Igor San Jose



2020ko otsailaren 6a

LUR-JAUSIA

"Dimentsio handiko" luizia gertatu da Zaldibarren, eta A-8 autobidea moztuta dago. Verter Reciclyng enpresak kudeatzen duen zabortegia amildu egin da.



2020ko otsailaren 6a

ERRESKATEA

Martxan ipini dituzte Alberto Sololuze eta Joaquín Beltran langileak aurkitzeko erreskate lanak.



Zaldibar urtebete joan eta gero

Urtebete joan da 2020ko otsailaren 6an Zaldibarko Verter Recycling hondakindegia amildu zela. Gertatutakoaren erantzukizunak ez dira argitu oraindino.

Jaurlaritzaren ebazpena

Eusko Jaurlaritzak urtarrilaren 10ean kaleratu zuen iazko martxoaren 4an zabaldutako ingurumen espedientearen ebazpena. Horren arabera, Verter Recycling da zabortegia amildu ostean izandako ingurumen kalteen arduraduna.

Bestalde, Verter enpresak "zorroztasun handiagoa" eskatu dio Jaurlaritzaren ebazpenari. "Ingurumen Erantzukizuneko legean erantzukizunak esleitzeko ezarritako baldintzak ez dira betetzen", azaldu du enpresak.



Zaldibar Argitu

Urte honetan, Zaldibar Argitu plataformak hainbat mobilizazio antolatu du. Gertatutakoaren erantzukizuna argitzea eskatu dute. Konfinamendu sasoian ere

protestak antolatu zituzten, etxetik izan arren. Urtebete igaro dela gogoratzeko, mobilizazioak antolatu dituzte hainbat herritan zapatutako. Zaldibarren, 13:00etan.



2020ko otsailaren 7a

AMANTOA ETA SUTEAK

Erreskate lanak eten egin behar izan dituzte hondakinen artean amianto dagoela baieztatu dutelako. Suteak piztu dira eta horrek ere eten egin du erreskatea.



2020ko otsaila

ARAU-HAUSTEAK

Hondakindegian arau-haustek zeudela jaso zuen Jaurilaritzak 2019ko uztailean.

2020ko otsailaren 8a

AUZOKIDEAK HASERRE

Eitzagako auzokideek informazio eza salatu dute. Txorroteko urik ez edateko esan diete. Auzokide batzuek euren etxetik irteten behar dute. Suteen eraginez kea arnasten dabilta.



2020ko otsailaren 9a

AIREAREN KALITATEA

Airearen kalitatearen neurketen arabera, otsailaren 9koan dioxina eta furano tasa altuak topatu dituzte. Inguruko herrietako bizilagunei leihoak ixteko eskatu diete.



2020ko otsailaren 15a

MOBILIZAZIO JENDETSUA

Mobilizazio ugari egin dute urte osoan zehar, Zaldibar Argitu plataformak deituta. Jendetsue-na, otsailaren 15ekoa. Ermutik, Eibartik eta Elgetatik irtendako zutabeek Eitzaga auzoan bat egin dute.



2020ko apirilaren 8a

PERITU AZTERKETA

Aditu talde bat Zaldibarko zabortegiko lur-jausia zerk eragin duen ikertzen dabil, Ingurumen Sailak hala eskatuta. Adituek azken peritu-txosten bat prestatuko dute. Bertan, luizia- ren eragile posibleak adieraziko dituzte.



2020ko uztailaren 21a

AUZI JUDIZIALA

Zaldibarko Verter Recycling zabortegiko hiru arduradunak atxilotu dituzte. Baldintzapean aske utzi dituzte. Eibarko Er-tzaintzaren komisarian zein ondoren Durangoko Auzite-gian egon diren denboran ez deklaratzeko eskubidea baliatu dute atxilotuek. Durangoko epaitegian instrukzio bi egiten dabilta: langileen eta pertso-nen kontrako delituri egon den ikertzen dabilta. Beste-tik, ingurumenaren aurkako delituri badagoen aztertzen dabilta.



2020ko azaroaren 24a

EUROPAKO PARLAMENTUA

Europako Batzordeak Zaldibar-ko hondakindegiko lur-jausia aztertuko du. Europako Parla-mentuan, Ekologistak Martxa-nek, Zaldibar Argituk eta San Lorenzoko auzo elkarteak egin dute eskaera.



2020ko abuztuaren 16a

BEHARGINEN BILA

Zaldibarko zabortegian Alberto Sololuzeren gorpuzkiak aurkitu dituzte. Joaquín Beltranen bila jarraitzen dute.





Sergio Monedero Alvaro
Argazkilaria
Bilbo (Abanto-Zierbenan bizi da) | 1974

“Kirola bera aitzakia bat da interesatzen zaidana adierazteko: pertsonak eta sentimenduak”

Sergio Monederok 15 argazkiz osatutako 'Rugbylariak' erakusketa estreinatu du Zornotzako Zelaieta Zentroan

ARGAZKIGINTZA • JOSEBA DERTEANO

Errugbi munduko 130 bat kirolarigaz batu, eta Sergio Monederok ehunka argazkiko artxibotik gutxi batzuk aukeratu ditu erakusketa osatzeko, berezi-berezienak. Kirola bera baino, kirolarien atzean dagoena, barruan gordetzen duten hori ateratzea eta argazkietan islatzea izan du helburu.

Tankera horretako bigarren lana duzu, 2017ko 'Boxeolariak' izenekoaren ondoren. Kirol bietan antzekotasunak aurkitu daitezke. Zergaitik aukeratu dituzu?

Erakargarritasunagaitik. Kirol bi horiek badute arakatu gura nuen erakargarritasun bat. Baina, egia esanda, kirola bera aitzakia bat da benetan interesatzen zaidana adierazteko: pertsonak eta sentimenduak. Azken batean, proiektu bi hauetan, boxeolari eta errugbiari buruz baino, pertsonen buruz ari naiz.

Errugbiariekin zelan lortu duzu bilazentzian hori azaleratzea? Zelan apurtu duzu hesi psikologikoa?

130 bat errugbiarigaz egon naiz. Pertsona batez nagoenean, pentsatzen dut bost minutuan ezin dudala atera benetan bila nabilen hori: sentimenduak eta motibazioa. Horregaitik, batutako bakoitzagaz ordu erdi inguru eman dut

berbetan, pertsona gehiago eza-gutzeko, bere motibazioen berri jakiteko eta kamerarekiko izan dezakeen beldur hori galdu zezan. Horren ostean atera izan dut kamera. Prozesu hori barik berak gura duen argazkia edo jarrera emango zidan pertsona horrek, ez ni bilatzen nenbilena.

Ateratako argazki guztietatik 15 bakarrik aukeratzea prozesu konplikatu bat izan da?

Demagun bakoitzagaz 100 argazki atera ditudala batez beste. Horien guztien artean, talde, genero eta bestelako hamaika ikuspegi kontuan hartuz, 15 bakarrik aukeratzea zoramena da. Niretzat, aurreko lan guztia baino zailagoa da. Argazki denetatik ehun bat aukeratu eta beste argazkilari batzuei laguntza eskatu diet hortik aurrera egiteko. Erakusketaren harira, atzo hitzaldi bat eskaini nuen Zornotzan, eta erakusketatik kanpora geratu diren argazki batzuk ere erakutsi nituen. Erakutsi gura nuen sarritan zelan aldatu daitekeen pertsona bera argazki batetik bestera. Argazkigintza oso subjektiboa da.

Nongo errugbiariekin egon zara?

Bizkaiko lau taldetako jokalar askogaz egon naiz. Zornotzako Urgozo, Uribealdea, Plentziako

Kakarraldo eta Getxo taldeetako jokalariekin batu naiz.

Zer kontatu diezagukezu Zornotzan ikusgai dagoen erakusketari buruz?

Hamabost erretratu dira, koloretakoak eta nahikoa neurri handikoak. Hasieratik argi nuen denak koloretakoak izango zirela, kamiseten koloreak eta abar nabarmentzeko. Boxeolarienak, oster, zuri-beltzeko argazkiak izan ziren. Genero aldetik oreka bilatzen ahalegindu naiz. Zaila da. Ez dut

gura nuen beste emakume aurkitu. Emakumeak proiektu osoaren %10 dira gutxi gorabehera. Erakusketan presentzia gehiago ematen ahalegindu naiz eta hiru bat argazki emakumeenak dira.

Argazkiak testuekin lagunduta daude?

Ez, argazkiak bakarrik dira. Ez naiz testuak gehitu zalea. Argazkiak berez berba egin behar duela uste dut. Gainera, ikuslearen interpretazioa ere aske utzi gura dut. Sentimen-

duei buruz ari naiz eta uste dut bakoitzak bere pentsamoldetik, bere kulturatik eta aldean daraman motxilatik argazkien interpretazio propioa egin behar duela.

Errugbiaren feedback-ik jaso duzu erakusketaren inguruan?

Erakusketako argazkietakoei ilusioa egiten die euren burua han ikusteak. Bestela, proiektuan parte hartu duten horiek uste dut ulertu dutela sentimenduei buruz berba egitea zela nire helburua.

Errugbiari horiek guztiak gertutik ezagutu ondoren, mundu horren gaineko zer ondorio ateratu duzu?

Niretzat oso interesgarria da jakitea pertsona batek zergaitik aukeratu duen kirol hori, kasu honetan errugbia. Kirola egite soila-gaitik den, lagun taldeak sortzen direlako den, estresa kentzeko formula den... Errugbiaren kasuan, filosofia batez atxikipen bat dutela ikusi dut.

Estereotipoen atzean dagoena deskubritu duzu?

Bai. Baina boxeoa oraindik handiagoa izan zen deskubrimendu hori. Denok aurreiritzi batzuk ditugu, boxeolariak jende oldarkorra izan daitezkeela, eta antzerakoak. Kontua da errealitatea horren guztiaren kontrakoa dela. Pentsatzen nuenaren guztiz kontrakoak diren munduak eta pertsonak ezagutu nituen.

COVID-agaz, zelan dago erakusketak antolatzeak kontua?

Egia esan, apur bat zaila da erakusketak programatzea. Lehenengo Portugalen izan zen, iazko azaroan. Zornotzatik Plentziara joango naiz, datorren hilean. Beste herri batzuetan ere hitzartuta ditut erakusketak, baina ez dakit noiz izango diren.



Sergio Monederoren erakusketa otsailaren amaierara arte egongo da ikusgai Zornotzako Zelaieta Zentroan.

Amorebieta eta Athletic B, Bigarren B Mailako lidertza jokoan egongo da biharko derbian

Talde biek partidu bana baino ez dute galdu. Amorebietaren porrota Athletic Bren kontra izan zen, lehenengo itzuliko derbian

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Bigarren B Mailako bigarren multzoan, orain arteko talde bi onenek indarrak neurtuko dituzte bihar, 16:30ean, Zornotzako Urritxe futbol zelaian. Zornotza liderrak puntu bakarrera du Athletic B. Beraz, lidertza egongo da jokoan.

14 jardunalditan partidu bakarrik galdu dute talde biek. Amorebietaren porrota, hain zuzen, Athleticen kontrako derbian izan zen (2-1), iazko azaroan; beraz, biharko derbiak mendeku kutsua ere izango du.

Bestalde, Athletic Bk ez daki galtzea zer den bigarren jardunalditik hona: 0-1, Racing Bren kontra.

Amorebietak partidu bat gutxiago jokatu du, joan zen asteburuko atzeratu egin zelako Barakaldoko jokalaririk batek positibo eman eta gero.

Athletic B golik gehien sartu duen taldea da (20) eta multzoko goleatzaile nagusia du: Nico Williams, sei golegaz. Koldo Obietak, Amorebietako goleatzaile nagusiak, hiru bider zulatu du aurkariaren atea orain arte.



Lehenengo itzuliko derbiko une bat; Nico Williams Athletic Bko jokalaria eta Amorebieta taldeko Aimar Sagastibeltza. **ATHLETIC CLUB**

Jokaldia

Kirola eta COVIDa

Orain dela urtebete inguru galdetu izan baligute, nork esango zuen pandemia oso batean sartuta egongo ginela orain; eta gure mundua goitik behera aldatuko zela. Inork ere ez.

Baina gaur ez naiz geratuko honek ekarri dizkigun gauza txar guztiak aztertzerako, horretarako nahikoa daukagu telebistarekin eta egunkariekin.

Mundua gelditu denez, horrek gizakiaren bizimodua aldatzera behartu gaitu. Bizimodu frenetiko batean bizi ginen aurretik, ezerekin ez geunden kontentu, denpora atera gabe bizi ginen eta geneukana baino gehiago eduki guran beti. Eta orain hori bukatu da, antzinako bizimodua edukitzera eraman gaitu berriro. Baserrian bizi garenok, hainbeste kritika hartu eta gero, “ca-



Eneritz Iturriaga
Mazaga
Txirrindularitza

**"Mundua gelditu denez,
horrek gizakiaren bizimodua
aldatzera behartu gaitu.
Aurretik bizimodu frenetiko
batean bizi ginen"**

**"Konturatu gara osasuna
inportantea dela, eta kirolarekin
eta familiarekin indarra hartuz
aurrera irtengo gara"**

seritak” garelakoa, orain oso ondo bizi izan gara lasai-lasai gure etxe eta mendi ondoetan, haize freskoa hartzen. Familiaren indarra berreskuratu da eta, batez ere, jende asko kirola egiten hasi da. Bai, hori da, kirola!

Etxean hainbeste ordu pasatzea, geldi egotea... Horrek kirola egitera eraman

du jende asko. Eta badakizue zelako ondo dator kion gure gorputzari, sendotu egiten duelako, immunitatea gehitzen duelako eta, gainera, barruan pilatuta dugun nerbio guztia bertan bota genezakeelako. Eta gurasoak kirola egiten gabiltzan honetan, zer esan genezake umeei buruz? Bada, berdina!

Era berri honetan, konturatu gara osasuna inportantea dela, eta kirolarekin eta familiarekin indarra hartuz aurrera irtengo gara. Gainera, azkenean umeen kirola garrantzitsua dela ikusi dute eta bagabiltza eurekin lanean. Bai noski, profesional mailan, bagabiltza, normalean bezala. Baina era berri honetan, balio berriak berreskuratu ditugu eta, seguraski, hobeto bizi izango gara, ez dut dudarik.

Mundu guztiari animoak bidaltzen dizkiot, denon artean gaindituko dugu birus hau eta!

**Estetika
gida**
anboto


**NUKLEO**
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO
Ile-apaindegia

**Ile-apaindegia**
**IUNIK**
ILEAPAINDEGIA
Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491




LABIRINTOA

Bazara gai bidea topatzeko?
Lagundu pailazoari globoak berreskuratzen.



DOMINOA

Marraztu dagokion irudia lauki zurietan.



 **anboto**

INAUTERIE TAKO ARGAZKI LEHIAKETA 2021

Webgunean botorik gehien
jasotzen duen argazkiaren egileak
Euskotzarak-en otzara bat irabaziko du



**Eman zure botoa
otsailaren 18tik
22ra arte**

***Oinarriak anboto.org webgunean**



Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak	
BARIKUA, 5 · 09:00-09:00	IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	09:00-22:00
09:00-22:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	ASTELEHENA, 8 · 09:00-09:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SARRIA Sasikoa 17, DURANGO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 6 · 09:00-09:00	09:00-22:00
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-13:30	MARTITZENA, 9 · 09:00-09:00
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	09:00-22:00
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	EGUAZTENA, 10 09:00-09:00
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - ABADIÑO	09:00-22:00
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	EGUENA, 11 · 09:00-09:00
09:00-14:00	GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00	09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
DOMEKA, 7 · 09:00-09:00	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA

**GOZATU**
GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

**Oihan** jaio da. Zorionak, Aitor eta Sara, familia osoaren partetik. Musu haundi bat.

Otsailaren 1ean 5 urte egin ditu gure **June** maripertxentak. Zorionak etxeko guztion partez! Patxo haundi bat!

**Kattalin Del Rio Zabaletak**, Abadiñoko sorgintxo politenak, sei urte eitten dauz. Zorionak eta musu asko etxekoen partez, eta bereziki asko maitte zaituzten Aratzen eta Malenen partez. Topa!

Zorionak **Eihar**, hamahirugarrenien bai! Disfratau tooooo-peeeraaaa zure egune! Karro-kada bat mosu!

Eguraldia		
ZAPATUA 🌡️ 9° / 3° ☁️	ASTELEHENA 🌡️ 12° / 6° ☁️	EGUAZTENA 🌡️ 13° / 7° ☁️
DOMEKA 🌡️ 10° / 7° ☁️	MARTITZENA 🌡️ 12° / 6° ☁️	EGUENA 🌡️ 14° / 7° ☁️

GAER



DESINFEKZIOAK



Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...



Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxe: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

“Orain kontzertua entzutera doa gehiago jendea, gozatzera”

Iñigo Gorrotxategik urteak daramatza zuzeneko kontzertuak grabatzen; ia 20 zuzeneko grabatu ditu. Txantxibiri irrati librean ibilitakoa da 1987tik; 20 urte egin zituen han



Iñigo Gorrotxategi Rivera 'Mojo'
Herriko kontzertuak grabatzen ditu
Durango | 1964

DURANGO • AITZIBER BASAURI

"Bihotzak ere badu bere musika, eta hori amaitzean dena amaitu da". Hala-xe dio urteetan Elorrión bizi den 'Mojo' durangarrak. Badu zaletasun berezi bat: zuzeneko kontzertuak grabatzen ditu, laguna zuen Segun Lazkanok izendatutako 'Soinudun patera' soinean duela. Musikazale amorratua izanik, edozein musika entzuteko prest dago; reggaetoia ere bai, baina abesti bat bakarrik.

Herriko kontzertuetan jarraitzaile leiala zarela entzun dugu.

Ahalegintzen naiz! Baina ezin naiz denetara heldu. Azken urtean ez dut irteteko aukera askorik izan, pandemiaren eraginez. Bada, herrian bertan izan diren kontzertue-

tara joan naiz ahal izan dudanean. Bat bera ere ez dudala galdu esango nuke!

Noiz hasi zinen kontzertuak grabatzen? Zerk bultzatuta?

Lehenengoa 16 urte nituela grabatu nuen, nahikoa era kaskarrean. Bihotzeko taldea nuen Errobik eta Bloque eta Zimel taldeek jo zuten Durangoko Maristetako frontoian. Bozgorailuaren ondoan ipini nuen etxeko irrati-kaseta. Desastre itzela izan zen! (barrez). Gerora, Itoizen kontzertu bat grabatu nuen. Agur esan aurretik, taldeak kontzertu bat eskaini zuen Euskal Herriko herrialde bakoitzean, 1988an. Oñatikoan (Gipuzkoan) egon ginen eta grabatu egin nuen, walkman batez. Beti erakarri nau zuzene-

koetan sortzen den giroak: eszenatokian dagoenak eta horrek jendartean sortzen duen erantzunak batez ere.

Mikrofona erabili zenuen geroago.

Bai. Mikrofona eta premiazko aparatuek motxilan sartu, eta Non Demontre eta Iraoren kontzertuak grabatu nituen. Ordurako, Txantxibiri irrati librean hasita nengoen, eta herrian gertatzen zena graba-

“

Soinu artxibategi polit bat osatu gura dut, lan horregaz gozatu; eta artxibategi hori Arriola antzokian utzi”

■

tzea merezi zuela pentsatu nuen: txistulariak, bertsolariak, jaietako kale giroa... gero irratiaren aireeratze-ko. 2002an *minidisc* bat erosi nuen eta kalitatea dezente hobetu nuen. Orain txartel batean grabatzen ditut kontzertuak, grabagailu eramangarriarekin.

Grabazioak digitalizatzeko lanetan sartuta zaude azken urte eta erdian.

Soinu artxibategi polit bat osatu gura dut, lan horregaz gozatu; eta Arriolan utzi, kontzerturik gehienak Arriolak antolatutakoak izan dira eta. Jazz Blues jaialdiak 31 urte egin ditu, adibidez. Hainbat talde etorri da, eta deneriko musika eskaini dute.

Zenbat kontzertu dituzu artxibatuta? Musikazale amorratua zaren aldetik, zuzenekoan falta igarri duzu?

Ez dakit esaten, 200 bat. 2020koa ere uzta ederra izan delakoan nago. Urte hasieran hainbat kontzertu grabatu nuen Ateneon. Musikaire ere izan dugu, eta Arriolako Jazz Blues Jaialdia, beste era batera. Igartzekotan, Ateneoko hileroko kontzertuen falta igarri dut. Hori bai, musikoei portaera igarri dut aldaketa.

Zer dela eta?

Kontzertuetara sozializatzen joan izan da jendea; kontzertuak iraun arteko lagunarteko elkarrizketak izatera. Inoiz tokatu zait bikote bat eztabaidan justu mikrofonoan, kontzertu osoan! Orain, kontzertua entzutera doa gehiago jendea, gozatzera. Maskararik bako kontzertuetara bueltatzen garenean, berdin aprobetxatzea espero dut. Kontzertu bakoitza bakarria delako, errepikaezina.

Bereziki gogoan duzun kontzertua?

Bakoitzak bere istorioa du atzean, baina badut bat oso kutuna, grabazioa oso ona ez den arren: Wilko Johnson Elorrión egon zenekoa. Beragaz berba egiteko aukera ere izan genuen. Oso tipo jatorra.

Binilo zalea zara.

Bai. 800 bat binilo ditut. Biniloa entzuteko, propio prestatu behar zara. Badago halako erritu bat. Eta azalak artelan zainduak dira. Gainera, gaur egun, askok ez daki nor den abestiaren egilea, nortzuk diren taldekideak...

Abesti bat?

Hegazti errariak (Mikel Laboa).

Lau-hortza

Martin Loizate
Ikaslea



Hasél, Aitor eta Galder...

I: Pablo Hasél abeslaria kartzelara sartuko dute, Arabia Saudira ihes eginda dagoen errege ohiaren kontrako mezuak idazteagatik.

Adierazpen askatasunaren inguruko zutabea idazteko tenenbilela iritsi zait mezua II: “Espainiako Auzitegi Nazionalak lau urteko kartzela zigorra ezarri die Aitor Zelaia eta Galder Barbadori”, 2019an material piroteknikoa zeukan bidobaten aurkikuntzarekin lotuta.

Bi gazteen kontrako epaiketaren bideoak ikusi dituen konturatu zen Auzitegi Nazionalaren salbuespenezko izaeraz. Trantsizioa deituri-ko antzerki horretan, Frankismoan Tribunal de Orden Público (TOP) zena desagertu zen egun berean jaio zen AN, epaileak batetik bestera pasatu zirelarik.

Eta atzo bezala gaur, Espainiak ez du zigorrik gabe uzten 78ko erregimena zalantzan jartzen duen inor. Hasél ez diote barkatu monarkiaren irudia kolokan zegoen momentu batean haren kontrako aldarria zabaltzea. Era berean, Aitor eta Galder mehatxua dira Espainiar Erregimenarentzat, urteetako jazarpenaren ostean estrategia berriturik borrokan jarraitzea erabaki duen gazteria ordezkatzeko dutelako. Mehatxua diren bezala Oihan, Jokin, Adur, Arnaldo, Miren, Sonia, Lur, Ane, Beñat eta egunero bestelako herri bat eraikitze-ko lan egiten duten milaka euskal herritar.

Eta III: Datorren astean 12 gazte nafarrek Auzitegi Nazionalan deklaratu beharko dute, iragan urriaren 12an erregearen estatua bat botatzegatik.

Gaur eurak dira, bihar ni edo zu izan gitezke, edo injustizia honen aurrean isilik geratu diren horiek.

ALKIMAX
Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550

GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310

www.alkimax.net



**Deskargarako
Dumpera
Deskargak
altueran**



**Kontainerretan
deskarga
egiteko Dumper
beldarra**

**Dumper
beldarra 500 kg**

